

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko otsailaren 25a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • La Bota elkarteak bihar egingen du, bigarren urtez, Kauteroen eguna

Igor Arroyo • «Nafar guztien presidente izaten saiatuko nintzatzeke»

Birziklatzea

• JOSEBA ZABALZA



Guatemalako zabortegian

Zaborraren arazoak aspaldi erakarri zuen Joseba Zabalza iruindarraren arreta. Bera argazkilaria da lanbidez, eta 1993an Guatemala hiriko zabortegira joan zen. Han ikusi zuena munduak ere ikusi behar zuela pentsatu zuen. Hirurehun bat familiak zabortegitik hartzen dutenarekin bizi dira. Bizirik irauteko birziklatzea da. Zabalzak makina bat argazki egin zituen zabortegian eta horietako batzuk bildu ditu guajeroen –zabor biltzaileen– lana eta duintasuna erakusteko.

Lizarra ●

Kauteroak kalera

Inauterien atariko jaia da bihar ospatuko den Kauteroen Eguna

Bigarren urtez jarraian, La Bota elkarteak Kauteroen Eguna antolatu du inauterien atariko gisa. Bihar arratseko seietatik aitzina iluntze arteraino, Lizarrako karrikak jai kolorez eta musikaz jantziko dira.



Kauteroen desfilea ikusi daiteke gaur Lizarran. ● ELI BELAUNTZARAN

IJITOAk, MOTXAILEAK ETA buhameak ikusi ahal izanen dira bihar Ega-ibaiak zeharkatzen duen hiriko karriketan zehar. Eguzkiaren argia ezkututzen den heinean, hainbat txoko eta bazterretatik mozorro berezi horiek ateratzen joanen dira. Buruan zapi luzeak, belarrietan zilarrezko bitxiak, lepoan perlazko idunekoa eta soinean jantzi zatar eta koloredunak; horrelaxe jantzen dira kauteroak. Eskuan, berriz, zartaginak,

kaskabiloak, lapikoak, mailuak eta antzekoak eramanen dituzte, betiere tresna horiekin soinua, zarata eta musika egin ahal izateko.

Ohitura zahar hau joan den urtean berreskuratu zuten La Bota elkarteak neska-mutilek eta Deierri taldeko gaitariak. «Jai hau egiteko asmoa aspaldidanik genuen, baina, hala ere, joan den urtean egin genuen aurreneko aldiz, eta jendea oso pozik eta gogotsu irten zen kalera», azaldu du Raul

Azpilikuetak, La Botako kideak.

Iazko arrakasta ikusita, antolatzaileek aurten ere jai eguna egiteko asmo gogotsua erakutsi dute. «Aurten lehentxeago irtengo gara kalera, arratsaldeko seietan hain zuzen. Izan ere, iaz beranduago atera ginen eta ume koskorrentzat berandu egin zen», erran du Azpilikuetak. Gauzak horrela, Lizarraldeko jende guziaz gonbidatu dute jaiaren parte hartzeko: umeak, gazte-

ak eta helduak. Hitzordua arratseko seietan da, La Bota elkarteak. Gero, bi ordu luze-tan, ibilaldia egingen dute Lizarrako karrika eta plaza orotan. Kalejiran lau herri kanta abestuko dira: betiko herri kantak baina propio idatzitako letra berezi batekin. Kalejiraren aurrealdean hartza eta bezatzailea joanen dira, jarraian musikariak, gero ingudea daraman karroza eta zuzendaria, eta, azkenik, kantariak eta tzingaroak.

Kauteroen Eguna Donostian ospatzen da nagusiki, baina azken urteotan Euskal Herriko bertze herrietara era zabaldu da ohitura. Jai egun honen jatorria aspaldikoa da. Ijitoak herriz herri ibiltzen ziren lehen zartaginak eta bertzelako lanabesak saltzen. Mailuen laguntzaz, zarata eta musika egiten zuten jendearen arreta erakartzeko. Horrelaxe egingen dute bihar ere. Izan ere, Lizarrako inauteriak martxoaren 3an, 4an, 5ean eta 7an egingen dituzte.

→ Kristina Berasain

Bera ●

Inauteriak Arantza eta Igantzira ailegatuko dira asteburuan

ATZODANIK HASIAK DIRA arantzarrak inauteriak ospatzen. Gaur mozorroak eta haurrak puska-biltzen aterako dira Aientsa eta Azkilarrea auzoetan. Iluntzean, dantzaldia izanen da Salaberriekin.

Larunbatean, Arantzako mozorroak herriko etxeetan ibiliko dira. Guraso Elkarteak antolatuta, berriz, haurren mozorro besta izanen da, eta horrekin batera merendua emanen zaie. Arratsean, dantzaldia izanen da Jalisko Band taldearekin.

Igandean, inauterietako azken egunean, eguerdiko 12:30etan, bertso-pilota jaialdia egingen dute pilotalekuan. Jose Migel Errandonea eta Oskar de Rueda arantzarrak gazteak Xebastian Lizaso botilero dutela ariko dira, eta Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Euzkitze bertsolariek Millan Telleria izanen dute botilero lanetan. Ondotik, herri kirolen saio ikusgarria prestatu dute. Gero bazkaltzera bilduko dira Aterpe jatetxera, eta Salaberri musikariarekin emanen diete akabera aurtengo inauteriei, herriari zehar egingen den potearekin.

Igantzina gaur hasiko dira inauteriak, baina biharko izanen dute egun handia. Mozorroek herri osoa zeharkatuko dute puska-bilketan. Irisarrin hasi eta gaineko auzo gutzietatik. Arratsaldean, herriko gazteek mozorroekin egindako antzezpena ikusi ahal izanen da.

→ Jon Abril

IRUÑEKO KAUTEROAK ELKARTEAK antolatuta, bederatzigarren urtez, heldu den larunbatean inauteriei diosala egingen zaie alde zaharreko hainbat karrika eta plazatan egingen diren ekitaldiekin. Karrikak oinezkoentzako egokitze lanak direla eta, desfilearen ibilbidea apur bat aldatu behar izan dute, Kale Nagusitik joan ordez Jarautatik abiatuko baitira kauteroak. Aldaketa gutitu fisikoen arazoak saihesteko egin dute. Izan ere, iaz aulki gurgildune-

Iruñea ●

Iruñeko kauteroak bederatzigarrenez

tan joaten direnentzako dantza berezia asmatu zuten eta, izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere egingen dute.

Ekitaldiak 09:20etan hasi eta 22:02an bukatuko dira. Ekitaldi antz izanen da egun guzian, batez ere San Frantzisko, San Nikolas eta Burgoen plazetan. Baten bat aipatzekotan, erran behar da Ka-


taluniako talde batek suzko mandoa ekarriko duela. Hori San Frantziskon izanen da, 19:30 aldera. Ordu erdi geroago, San Nikolasen, Nafarroako Antzerki Eskolako ikasleek *Kauteroaren fartsa* eta *Margarito hartza* antzeztuko dute. Afaria 22:00an hasiko da, eta Jarauta 69 fanfarreak lagunduko du.

Antolatzaileek jendea animatu nahi izan dute, ikuskitzenez gozatzeaz gain, bertan murgil daitezen mozorro, maskara edo zarata sortzen duen edozein tresna eramanen. Aurten, bertze urteekin alderatuta, ez dago deus berezirik diru laguntzarik jaso ez eta zorra dutelako. Hurrengo urterako «zerbait handiosoa» prestatzen ari dira. Aurtengo, nahikoa da mozorroa eta zartagina, eta ongi pasatu nahia.

→ Daniel Urrutia

bi hormetara ●

JOSETXO AZKONA



Bazkaldu ondoren -digestioa hastear dagoela irakurri dut egunkarian; alegia, Daniel Dergi preso lapurtarraren osasun egoera larrizten doala minutuz minutu; gaur, otsailak 22, berrogeita hamazortzi egun bete baititu gose greban Fresnes presondegian. Haren ingurukoak -senide, lagun, abokatu eta medikuak- atzeraezinezko egoeran sartu ote den beldur dira; giza gorputzak badituelako bere mugak, noski.

Hasi naiz indigestioaren lehen sintomak antzematen: gasak pilatuz doaz urdailean.

«Edozein orenetan/ egunaren argitan edo gau ilune-

Astearte arratsaldean

an/ hemen edo han/ beti/ izanen da bat edo beste/ zer edo zer jaten/ arraina, okela, odola/ bihia, barazkia edo fruitua/ beti zer edo zer jaten/ Oraintxe/ miloika hortz, hagin eta letagin/ arituko dira multzoka/ batera jana txikitzen/ ziegako preso horrenak salbu/ nahita ahoan eragiteke dituen/ Sabela zimuririk/ esteak orroaka/ goseak hil beharrean». Azken protesta dateke, non-bait.

Bostak dira, eta Euskal Herria irratia pizturik daukat. Bertatik aditzen dut notizia: Fernando Buesa Alderdi Sozialistako buruzagi eta Gazteizko parlamentaria hil

dute bonba-auto batez, berarekin zihoan Jorge Diaz Elorza ertzaina ere gisa berean hil duten bezala. ETAK biak hilak: bihotzerrea.

Desgogaturik, alde batera uzten dut taxista lana: ez dut nahi arratsalde honetan inorekin ibiltzerik. Nahigabearen menpe jarraitzen dut folio aurrean; beharturik, bihar falta gabe artikulua hau Asierriri eman behar diot eta. Bestelak!...

Ahoan gas letalak besterik ez ditudala, ostiraleko zutabe honen amaierari ekiten diot behingoz: urdaileko minez eta nazka erabat eginda. Indigestio kronikoa.

Leitza •

Hiru herrietako euskaltzaleen topaketak

Apirila hasieran elkartuko dira Bermeo, Sara eta Leitzaoko euskaltzaleak

Apirileko lehen asteburuan Bermeon eginen den jairako hainbat ekitaldiz osatutako egitarau zabala prestatu dute Leitza, Bermeo eta Sarako kultur, gazte eta dantzari talde eta euskalgintzako hainbat kidek.



Euskararen normalizazioaren aldeko apostua egin nahi dute Bermeo (Bizkaia), Sara (Lapurdi) eta Leitzaoko (Nafarroa) euskaltzaleek. ● EGUNKARIA

SARA (LAPURDI), BERMEO (Bizkaia) eta Leitza herriak elkartu nahian dabilta euskararen normalizazioaren aldeko apustua eginez. Apirileko Bermeoko jaia da lehen urratsa euskararen aldeko ahaleginetan lanean gogor ari direnen asmoen artean. Sara, Bermeo eta Leitza ezberdinak dira tamainan, lanbideetan, itxuran, baina euren nortasunaren osagai nagusian, euskararen, bat egiten dute. Horregatik, «euskararen itsasoaren gainetik euskaraz bizi nahi duten

hiru herri dira», jaia iragaritzeko liburuxkoak dioenez. Eta «euskararen mareak berriz gora egin eta Euskal Herria, euskararen herria, berriz osatzen den arte» lanean jarraituko dute hiru herriok.

Bermeon, herritarren %83 dira euskaldun, eta euskara izan da beti eguneroko hizkuntza. 1995etik UEMAKo

kidea da. Leitza, berriz, herritarren %90 dira euskaldun. Euskararen alde lan handia egin du Leitza betidanik, baina bereziki azken urte hauetan. UEMAKo kidea da Leitza ere.

Sarako euskararen egoera, berriz, kezkatzeko modukoa da. Euskara gehienbat etxean baliatzen da, baina hitzuna zenbat eta gaztea-

go izan, orduan eta erdaldunagoa da. 16 eta 24 urte arteko gazteen %11 besterik ez da elebiduna. Egoera mingarri hori ikusirik, euskara taldea sortzea eta Hegoaldeko lagunekin batera euskararen normalizazioaren alde egitea erabaki dute.

→ Eli Belauntzarán



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Joxe Miel Astizen aspaldiko kontuak

Joxe Miel Astiz Urritza 81 urteko etxalekuarraren oroitzapenak bildu ditu **Pulunpe** aldizkariako azken zenbakiak, Imozko hizkerari eskainitako tartean. Eskolako garaiei buruz, horrela mintzatzen da Joxe Miel Astitz: «Gu moteko koxkorrak gine-laik goitiko eskola zarraa yoaten ginen. Hemen urteazuk eille nintzen, 10 urteeken Iruñeko Seminariora yoan bait nintzen. Bakarren urteatez eondo nintzen. Eskolan baiño askoz geigo ikase nun, latin eta denatek ikase nun, hortatek atea kontuk! Paseatzea ateatzea giñenin, sotana

eta *bonetea* yarrita yoaten giñen. Hemengo Don Martin Azpirotz apezazena eta bieko eondo giñen. Baiño neu etzitzein Seminarioko giroa gegei gus-tatzen eta gogoan yoan zitzaizken estudiatzeko».

«Eskolaa yoaren seittu nun, baino 16 urte nittulaik gerra etorre zen eta frentea yoan bearra izandu nin. Nei Avila aldea yoatea suertatu zitzein. Zazpi urte pasatu nittun. 25 urte nittun etxea etortzeako. Gerra denborak ez giñun goseek pasto. Gerra akatuta Madrillea yoan giñelaik han etzeon deusee, ez ogi, ez ja. Ordunee

bazen yende asko sekule etzutenak izaten peztaat ez ziarroak eosteko, ez deustako. Duroat ematen ziuten illa-atean eta horrekin deus gutxe...»

«Gerratek itxea etorreta aziendaken saiato nintzen. Ta berreee yayoko banintze, hala seittuko nuke, ez nintzeke Ameeketa yoan asko bezala. Oain, noske, zaille litzeke mutillen eukitzi, baiño oain dela 50 urte izaten zeen itxe gehienetan. Garaitan urteko 15.000 pezta, otordu eta goatzi ematen zitzeon. A noske! Urte osoan laniin aitzen zen, bakazioak eta hola-ko puñetakereik etzen izaten».

Egin dezagun atzera

Gaur goizeko bederatzi eta erdian egunkaria erosi eta Takonerako Vienas kafetegira abiatu naiz. Eguzkia aurpegian sentitzen nuen, ebaki bat nire zain zegoen, hau patxada nirea! Baina ez zen hau kontatu nahi nizuena. Egin dezagun atzera. Goizeko bederatzietan San Lorentzo elizaren izkina honetan mendira edo ehizara joateko hitzordua egina zutenak biltzen ziren. Ordu horretan ni altxatzeaz nintzen. Lainoaren azken arrastoak oraindik ere nabaritzen ziren. Hezetan argitsu batek inguratzen zuen dena.

Baina ez zen hau kontatu nahi nizuena. Egin dezagun atzera. Goizeko zortzietan Iturrama eta Donibane auzoetan ibilitako gaupaseroak Alde Zaharrentz pasatu dira hemen-dik. Hamar metroetan sei edo zazpi aldiz gelditu dira barrezka eta ahots altuan txantxak eta monologo arraroak botatzen. Memento horretan bertan lainoa desagertzen hasia zen. Ordu horretan hotza egiten zuen hemen. Nik, nire ohean bero-bero sartuta, sentitu ez dudana hotza.

Baina ez zen hau kontatu nahi nizuena. Egin dezagun atzera. Goizeko zazpitan, ni jaiki baino bi ordu aurretik, hemen ez zen inor. Ordu erdiko basamortu antzeko batekin alderatu genezake. Ez zen argirik. Laino estaliak zeuden bai zuhaitzak, bai elizaren dorrea. Erlojuaren argi hori-borobilak San Lorentzo elizaren lekua salatzen zuen. Ordu horretan ni gaueko azken ametsarekin ari nintzen. Erotikoa izaten dena, badakizue.

Baina ez zen hau kontatu nahi nizuena. Egin dezagun atzera. Goizeko sei eta erdian errepede ondoko izkina honetan hogeita hiru pertsona biltzen ari ziren. Hotz handia sentitzen zuten. Besapean bokata bildu bat zeramaten. Marokorak dira gehienak, Senegalgoak batzuk, Aljeriakoak bi edo hiru. Lanera joateko autobusaren zain zeuden. Ordu horretan ez zegoen hemen inongo argirik, ez eta erlojuarena ere. Ordu horretan pixka bat ematen du hiririk ez balego bezala. Hiriak geroxeago ireki, berotu, piztu, altxatu eta gosaltzen baitu. Goizeko sei eta erdian ni, ehiztariak eta mendizaleak ohean geunden, parranderoak taberna batean barrezka zebiltzaten eta San Lorentzoko izkina honetan hogeita hiru pertsona guretat existitzen ez den espazio bat betetzen ari ziren. Honetaz bai. Honetaz hitz egin nahi nuzen. ●

Birziklatzea

Guatemala hiriko zabortegiko 'guajero'-en lana eta duintasuna argazkietan jaso du Joseba Zabalza iruindarrak

Zaborraren arazoak aspaldi erakarri zuen Joseba Zabalzaren interesa. Gaztetxo zelarik, kartoiak eta burdinak biltzen zituen sanferminetarako dirua lortzearen. Gerora, birziklatzeko grina xume hori ideologizatu zuen Zabalzak. Bera argazkilaria da lanbidez. 1993an Guatemala hiriko zabortegira joan zen, eta han ikusi zuena munduak ere ikusi behar zuela pentsatu zuen.



JOSEBA ZABALZA 1993KO APIRILEAN izan zen lehendabizikoz Guatemala hiriko zabortegian. «Han ikusi nuena harrigarria zen», dio Zabalzak. «Jende pila zegoen zabor artean gauzen bila». Pare bat hilabetez argazkiak egiten aritu zen. Iazko irailean eta azaroan ere han izan zen, lana bukatzeko.

Guatemala hiriko zabortegiaren inguruetan hainbat *colonia* (auzo) daude, eta han hirurehun bat familia bizi omen dira. Zaborrean aurkitzen dutenarekin lortzen dute jatekoa. «Aluminioa, burdina, kartoiak eta papera, ehunak, plastikoak eta jostailuak hartzen dituzte», dio Zabalzak. «Baita jakiak eta zigarroak ere». Zabortegi batean aurki daitezkeen probetxuzko edozer hartzen dute.

Zabalzak dioenez, *guajero*-ak (zabor biltzaileak) zaborretik bizi dira, baina ez zaborrean. «Zabortegian dauden askok diru gehiago irabazten dute hiriko bulego batean lan egiten dutenek baino. Baina hor dago jota daudenak ere, kola edo alkoholaren menpean erori direnak. Hori oso gaizki bizi

dira». Zaborraren ekonomia horretan, *guajero*-ak daude maila apalenean. Eskuekin ateratzen dute zaborra kamioiek ekartzen dituzten piloetatik. Pixka bat gorago bitartekariak daude, *guajero*-ei zaborra erosi eta birziklatzeko lantegiei saltzen dietenak. «Zabortegiko bizi-baldintzak gogorrrak dira. Jende asko kolaren menpean erori da, edo alkoholaren menpean (puruu hartzen dute, 96 gradukoa). Crack asko dago, baita marihuana ere. Gogorra da».

Leku arriskutsua

Udalak hormigoi blokez eraikiri-ko etxebizitza batzuetan bizi dira pribilegiatuak. Gehienek burdin xaflekin egin dituzte euren txabolak. Zabalza Guatemalan izan zenean, ez zen txabola horietan bizi izan, baina gauren bat han igaro zuen. «Han lo egin nuenean, ez nuen zabor artean lo egiten ari nintzelako irudipena izan. *Colonia*-k ez daude zabortegian bertan. Ondoa daude, baina hor ez dago zaborrarik. Gogoan dut han lo egin nuenean arkakusoez eraso zidatela dozenaka. Baina nik eskertzen

diet hangoi euren etxeetan lo egiten utzi izana».

Zabortegia leku arriskutsua da. «Joan nintzen lehen aldian ezagutu nituen zenbait zabortegian bertan erail zituzten, matxetez edo tiroka». Baina, Zabalzak erran duenez, zabortegiko jendeak nahiko ongi hartu zuen argazkilaria *gringo*-a, bigarren aldian batez ere. «Zaila izan zen, hala ere. Batzuek, barrez, erratan zuten ez zutela ulertzen zertara zihoan *gringo*-a zabortegira argazkiak egitera. Beste batzuek, mesfidantzaz, txiroei argazkiak eginez dirutza lortuko nuela zioten». Zabalzak zabortegikoekin hitz egiten zuenean, argi zuen norekin egin zitzakeen txantxak eta norekin ez. «Kontu handiz ibili behar duzu. Azkarrarena egiten baduzu, ziur aski sakanaren azpian bukatuko duzu, buruan bala bat duzula. Oso azkarra ez, baina oso ergela ere ez. Nik argi nuen nortzuk ziren hori kontrolatzen zutenak, zabortegiko *capo*-ak, crack saltzen zutenak, bandetako jendea. Eurekin ongi moldatu behar duzu».

Hirian bertan

Guatemala hiriko zabortegia ez dago hirira-
ren ondoan, hirian bertan baizik, hiruga-

bizirik irauta da



Hiri-
ragin
dituzten,
Giriko
zabortegian
guzia eta
ogeri
da leku
hazterria

ren barrutian. Mende hasieran hasi ziren zaborra botatzen hiri ondoko sakan batean. Baina lehen alboan zegoena orain erdian dago. Guatemala hiria izugarri handitu da. Mende hasieran 200.000 bizilagun zituen, eta orain hiru milioi eta erdi. Zabortegia 1952an ofizialdu zen, nolabait errateko. Orduan hirurehun bat lagun hasi ziren *guajeatzen*, hau da, zabortegitik gauzak hartu eta azokan saltzen.

«Zabortegia hiriarren erdian dago eta kendu egin nahi dute», dio Zabalzak. «Oso arazo handia da. Usaina izugarria da eta hiri osora heltzen da. Udan, zabortegira hurbiltzen zaren heinean, putreak ikusi eta usaintzen hasten zara». Zabortegian birziklatzeko lantegia egiten ari dira. Baina *guajero*-ak aurka daude, %95 lanik gabe geldituko bailirateke. Udalak lana eman nahi die zabortegian bizitza osoa eman dutenei. Gehienak kanpoan geldituko liriteke, eta besteek gutiago kobratuko lukete.

Hauteskunde kanpainetan, Guatemala hiriko alkategai guzien promesa da zabortegia kentzea. Osasun arazo gisa ikusten dute, batetik. Izurriteak izan dira, ur beltzak, eta arratoiak. Eta usaina. Usain izu-

garri handia. «Konparazio batera, Aranguren zabortegia Iruñeko Donibanen paratzea bezalakoa da Guatemalakoak», dio Zabalzak. Eta, bestetik, zabortegiak leku oso arriskutsua delako ospea du. «Bertaratu nintzen lehen egunean, lau lagun hil zituzten zabortegian».

Baina *guajero*-ek ez dute alde egin nahi. Eurak kanporatzeko zabortegian armada sartu beharko dutela diote. Batzuk berrogeita hamar urte egin dituzte zabortegian. Eta urte horietan, Zabalzak kontatzen duenez, egon da jendea diru nahikoa izan duena bere seme-alabak EEBBko unibertsitateetara bidaltzeko. Ogia irabazteko modu bakarra dute askok zaborra biltzea.

Liburua eta erakusketa

Zabalza zabortegira joan zen bigarren aldian Anat-Lane eta Lizarrako ekologisten laguntza zuen zenbait proiektu burutzeko. Berak dioenez, zabortegian ikusi zuena ikusi behar zuen munduak. Egin zituen argazki batzuekin laurogei orrialdeko libu-

Joseba Zabalza

Argazkilaria



«Lana eta duintasuna islatzen saiatu naiz»

JOSEBA ZABALZA ARGAZKILARI IRUINDARRAK GUATEMALA HIRIKO ZABORTEGIAN HAMAR BAT MILA ARGAZKI egin zituen, hirurehun bat karrete. Eta horietako berrogeita bat argazki aukeratu ditu liburu bat ilustratzeko.

Argazkietan zabortegian zer zegoen ikusten da?

Nire ustez zabortegia zer den islatu dut argazki horietan. Gero irudipena duzu ez duzula dena sartu. Baina argazkietan lana eta duintasuna ikustarazten saiatu naiz. Denetatik falta duten lekuetan, aniztatan duintasuna soberan dute, eta benetan lan egiten duen jendea da. Eta penaren argazkiak baztertu ditut. Ziur naiz beste argazkilaria batzuk zaborra jaten duten haurrei bakarrik eginen lizketela argazkiak. Baina nire lanean ez dago halakorik. Existitzen dira, baina ez dut horretara jo nahi izan. Miseria ikusiko da nire argazkietan, zabortegi batean txarrena aurki daiteke eta. Baina, batez ere, jendea lanean ikusiko da. Eta birziklapena. Eta zaborraren arazo, heldu den mendeko arazo handia.

Baina han bestela birziklatzen da.

Bai, bizirik irauteko ekonomia eta birziklapena da. Ez dute ikuspegi ekologistarik, ezta hurrik eman ere. Batzuek birziklapen hitza ezagutzen dute eta galdetzen dizute nola egiten den hemen. Baina gehiagorik ez. Ekologistak dira jakin gabe. Zaborra biltzea tokatu zate, besterik ez.

Zer egin daiteke zaborraren?

Lehen munduan zer egin behar den argi dut, baina bestean ez horrenbeste. Batetik, hemen ahal den guzira birziklatu behar da eta, bestetik, ezin dugu Hirugarren Mundua erabili zabortegi bat balitz bezala zabor kimiko eta erradiaktiboa bidaliz. Guatemalari dagokionez, argi dago zabortegia ingurugiro arazo handia dela, kontrolik gabe botatzen baita. Baina euredako zabortegia bedeinkazioa da. «Eskerrak Jainkoari zabortegia existitzen delako eta horrela behartsuek bizitzeko zerbaitek atera dezaketelako», erratan zidaten. Argi dago hiri erdian zabortegia izatea ez dela ona, baina zer egin behar duzu jende horrekin guziarekin?

rua osatu du Zabalzak, txuri beltzean. Maiatzean aterako da. Testuak Zabalzak berak, Rodolfo Izal apaizak, Oto Rivera soziologoak eta Koldo Azkunek egin dituzte. Gainera ikusentzunezko unitate didaktikoa egin dute haurrendako. Ikastetxeetara pertsona bat joan da esplikatzeko zaborra arazo globala dela eta birziklatzea ezinbestekoa dela. Azkenik, erakusketa ibiltaria egin nahi dute. Hori guzira egiteko hainbat lekutatik lortu dute dirua, Nafarroako Gobernutik, Iruñea eta Berriozarko udaletatik eta Iruñerriko Mankomunitatetik.

Kontu honek bere jarraipena izanen du. Zabalzaren hurrengo helburua Madagaskar da. «Han ere oso zabortegi interesgarria dago», komentatu du argazkilaria iruindarrak. Zabortegi zaharra da hangoa. Zaborra trinkotu da eta landareta sortu da. Bertako jendeak meatzak egiten ditu barnetik materiala ateratzeko. Beti ere, bizirik irauteko birziklatzearen onerako.

→ Aier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Baztango euskal idazleen berri laburra (eta VI)

Baztangoizara arraitzuliz, gaurkoarekin bukatutzat ematen dugu Baztango euskal idazleen berri labur emateko prestatu dugun honako zerrenda hau, ez ordea itxiztat, exhaustibo izan gabe, aipatu ez ditugun beste zenbait egile irakurleak eranstea zinez espero baitugu.



Blas Fagoaga Ariztia (1897-1966, *Erratzu*) Erratzuko Etxebeltzan 1897.eko otsailaren 3an jaio zen Blas Fagoaga ezaguna. Eliz ikasketak Iruñean buruturik, bertan apeztu zen 1920.ean. Ez zuen apezgaitegiko giroa segituan largatu, izan ere, 1924.era ko bertako liburuzaina eta irakaslea izan baitzen, bere bizitzarik gehiena langintza hartan eman zuelarik. Gaixotu zen batean, Erratzura egin zuen, bertan bi urte eskas bete zituela, 1966.eko ekainaren 22an hil zelarik. Euskaltzale fin eta sutsua, euskara irakasle jardun zuen bai apezgaitegian bai jabeturik zeukan Nafarroako Aldundiaren euskara Katedratik, euskaltzain urgazlea bageneukan, eta Euskararen Adiskideak taldekidea zen haren sorreratik. (Taldea hartan etorki baztandarrereko beste apez garrantzitsua ere ibili zitzaigun, Luis Goñi Urrutia, hots, Iruñean jaioa bazen ere, 1869.eko martxoaren 11n hain zuzen ere, euskaldun suharra zena. Luis Goñi hau Zalba, Ziga eta Arizkungo erreto-re ibili zitzaigun, eta *Zeruko Argia*-ren aztertzailea genuen, Iruñeko apezpikutegiko pisuzko karguak izan zituelarik).

Guztiarekin ere, gutxi izan da Fagoagak euskaraz izkiriaturik utzi ziguna, eta aunitzez gehiago dira erdaraz taxutu zituen lanak, esate baterako *Semblanzas sacerdotales* izenburuaren azpian Juan Lorenzo Irigoien Dutari, Pedro Maria Ilundain Oiaregi, Zipriano Olaso Aranguren eta Joakin Elkano Erro apez nafarren gainean hagitz trebe ondu zituen lau biografiak, genero honetan benetako maisua zela erakusten diguna. Euskaraz burutu

zituenen artean, berriz, oierkiak dituzkegu aipagarrien, Euskararen Adiskideek 1933.ean Iruñean antolatutako sariketa literarioan 200 pezetako lehenbiziko sariaren irabazlea izan genuelarik. Lexikografian ere *Azkueren iztegi berritu eta osoturako: Joakin Lizarraga Elkanoko apaizaren liburua argitara gabekoetatik ateratako itz saila* izenburu interesgarriko artikulu mamitsua eman zuen argitara 1959.eko *Euskera* aldizkarian. Azkenik, eta eskakizun praktikoagoetara moldatu beharrez, euskal katekesietan erabilgarria suertatuko zen *Lenbiziko yaunartzerako kristau ikasbidea* izenburuko lana prestatu zigun.

Jazinto Sanziñena

Ibarrondo (1918-1984, *Amatuir*) Amatuirren 1918.ean sortua, apeztu, eta Amatuirren bertan jardun zigun apez bizitzarik gehiena, jubilatuta ostean, 1984.ean Iruñean zendu zitzaigularik. Artikuluegile oparoa, *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian idatzi zituen bere kolaborazio ugariak, argitalpen hau sortu zen une beretik gainera. Bertan *Solas ta solas* izenburuko saila, hau da, Mari eta Engraziren arteko solasaldiak, *Zuretzat, neretzat, biontzat* eta *Elizaren itza* sail erlijiosoak, eta bertso aunitz eta aunitz eman zituen argitara, bere izen osoan batzuetan, eta *Ibarrondo* laburtu batekin gehienetan. Txema Larreak apaaturiko *Nafarroako euskal idazleak* Pamielako bigarren hartan Sanziñenaren hiru testu baditugu irakugai, *Dezakegun neurrian, Ez hain ongi eta Olio eta gatza*, idazle honen ezaugarri nabarmenenak aisa erakusten dizkigutenak, alegia, herrikotasuna, euskara xalota eta erreza, euskal gauzekiko maitasun itzela, eta sentimendu sakona: «Illunabar

batez, berze aunitzetan bezala, gizon sailtxo bat bildu zan erriko ardandegi batera. Olakoetan gertatzen dan, danok dakigu. Lagunek lagunerik, erran behar aunitz. Ardoa edan, belarra erretzeko, ta belarra erre, ardoa goxokiago iresteko. Ta bizkitartean bakoitzak ongi badator, bere alderdik onak agertu ere bai. Trabelariak, kantariak, ateraldizaleak, bertsolariak, piztahazten ditu ardo onak bilkura oietan. Ilunabar ortan, ardangelako txoko batean iarrira zeuden bi gizon; adinean sartuak, baña osasunez bizkor biak, beren muxu-gorriarekin ardoak on egiten zabela adieraziz. Ostaturko lagunak ohartzen dira bi oietan, ta *alkarri bertsotan ari dituk, goazen, entzun*-diote. Baña, ixildurik ere, etzuten entzuten ezer, apal-apal ta alkarrentzat ari zirelako, ardo-potaxa bakarrik bere entzuletzat autatu balute bezala. Urbildu beharko entzutekotan: Ama maitagarri / Ama osoa! / Mehatze oneko / Urre garbia! / Izazu zeruan / Bizitz gozoa! Nik zuri jarraikiz / ango argia!».

Azken hitz

Eta honenbestez, garaia badelako, Baztango euskal idazleen berri emate honi uzten diogu. Hamalau izan dira aipatu izan ditugunak, eta askoz gehiago ere badira Nafarkaritateke utzi ditugunak, esate baterako *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalean kolaboratzaile zintzoa zen Nizeto Beltzunegi Mendibe (*Erratzu*, 1871-1946), *Zeruko Argia* zein *Principe de Viana* euskal aldizkarietan idazki andana agertu zituen Juan Gortari Ugarte arraioztarra (1975.eko *Baztan Bidasoa* liburuxkaren egilea), edota Luis Goñi Urrutia. Azken hau Iruñean jaio bazen ere, gurasoak baztandarrak zituen eta euskaldun arronta genuen; apeztu ostean Zigan lehenbizi eta Arizkunero gero izan zen erretore, eta harango artzipreste ere jardun zuen: euskaraz ez zuen gauza haundirik idatzi, baina *Zeruko Argia* aldizkariaren aztertzaile onbera izan genuen.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Tobera eta zinburrina

Lehengo batean, Goizuetako *Tobere-nea* etxe izena eta *toberak* aipatzen nituen, eta aurreko igandean horra non jakin dudan Joamari Beltranen ikasle gazteek *toberak* jo zizkiotela Leitzako eliz atarian, hain zuzen ere Beltraneko senar-emazte diren Joxakin Otermin eta Isabel Sagastibelzari, beren urrezko ezteiak zirela eta.

Agur Maria graziz betea Eguna hasi du argitzen. Holako eztei konturik lehen Ez genun asko aditzen: Illobak tobera joka, horra! Aiton amonak alaitzen.

Goizuetan izena, ba Leitzan izana, izorrai! esanez bezala. Hau da hau lana, ipini didatena, bi auzo herrien arteko teman! Ez jakin atarramentu onik aterako dudana, baina ni herrietan zabaldu nahi nuke gaurko nere gorotz etomologikoa.

Baliteke erdarazko *bóveda* hitzean izatea bere erroak gure *tobera* hitzak. Azkuek euskaraz jaso zituen aldaera (*dobera, dobela, dobelarri*) eta esanahi gehienek hala sinalatzen baitute. Edo latineko *tuba, tubula* edo gisakoren batean ote ditu lehenagoko sustraia? Kontua da hitzok denak, erro beratsua dutela, eta ezin direla elkarrengandik aisa bereiz. Izanez ere, *bóveda, cúpula, cimborrio, toba, tubo, tuba, tubula, kubos, kiborion...* bezalako hitzek, grekeratik latinean barrera sustrai bera nabari baitute: sorreran irudi geometriko biribil (koniko, zilindriko, erdiesferiko) orori zegokiona, alegia.

Usuario horri jarraiki, esan liteke euskarak *tobera* etxekotu duela irudi geometriko hori nonahi (burniola, karobi, erro-taa) geri dela ere, eta lanbide horien inguruko festagrinen eraginik edo, hortik atera zela gero *tobera* hitza, inbutu gisako musika tresnaren batez (*toberaz*) lagunduriko koplagingintza xelebrea izendatzeko. Baina, behar bada, (eta hala

hobe, nahiz gure Lekuona xaharraren irudimenak besterik uste), ez du deus ikuñirik lantegi horietan guzietan ageritako *tobera* horiekin, eta irudi geometrikotik beretik sortua genuke musika tresnaren izena, *tutua, turuta, tutubera*, eta gisako beste musika tresna askoren izenak bezalatsu.

Sorrera berdintsua izan lezakeen beste musika tresna, euskaraz *ziburrun, zinburrin, zinburrin, zinbrin, zinburrinete* eta antzera deitu izan dena litzake nere uste agian erdiustelean. Nondik sortu ote den, aurrean begiratuan onomatopeikoa dirudien hitz hori? Behar bada, beste musika tresna asko bezala, lehengo irudi geometrikoen familia berberetik. Honatx zer dioen gaztelazko *cimborrio* hitzari buruz hiztegiak: *cimborrio o cimborio*: (lat. *ciborium* **gr.kiborion** = copa como el fruto del nenufar) 1. Cuerpo cilíndrico que sustenta la cúpula. 2. *Cúpula*. Ez ote dira latineko *ciborium* horretatik edo sortuak izanen gure euskarazko aldaerak? Larri ibili. Azkuek honela jaso zituen izen horren aldaeretako batzuk: *ZIBURRUN*: caramillo, silbo que los muchachos hacen con vegetales: chalemie, sifflet que font les enfants avec des végétaux. *ZINBURRINA*: *alboque, instrumento hecho con dos cuernos unidos por sus puntas, cornet á bouquin fait de deux cornes dont les pointes sont juxtaposées*.

Leitzan, Kandido Azpiroz Tolatxenekoari askotan aditua diot berriz, honako kanta xelebrea hau:

Zimurriñete, zimurriñete Iru iltzeburu nittuen dote. Beste zerbatt gehiago banuen ere Burruntzali zar tzar bat kiderrik gabe.

Eta Kandidoren anaia zena Joxemari apaizak, holaxe argiturik utzi zigun, hasierako hitz horren zentzua: *ZINBURRINETE*. Var. de *ZINBURRIN*. *Instrumento músico*. Hortik aurrekoak, filologo adituen esku.

Ziria

• Motxorrosolo •

Dieta

Ohi denez, paperaren eremuan oro da posible. Alta, oro ez da urre. Hobe lukete, etorkizun hurbilean horren zaila diruditen tankera horretako dieten egitasmoez bainoago, inguruko artean ezer erdiesteko egin beharreko lanaz jardutea. Afera horretan, aspaldi ezarri ziguten jan-neurria. Hautesleek bazka galdetzen diete.

Igor Arroyo  EHko Nafarroako parlamentarioa

«Nafar guztien presidente izaten saiatuko nintzatzeko»

Hegoaldeko Ikasle Abertzaleak (IA) taldeko bozeramailea eta EHko Nafarroako parlamentarioa ere bada Igor Arroyo 21 urteko iruindarra. Bi karguok denbora franko kentzen dioten arren, lo lasai asko egiten omen du. Foru Erkidegoko presidente balitz nafar guztiena izaten saiatuko litzatekeela adierazi du.

AURREKO ASTEAZKENEAN egon zen lehenengoz Nafarroako bilkuran, Txema Barriosen lekukoa hartuta. Ideiak argi ditu, eta erantzuterakoan ez du pentsatzeko betarik hartzen. Gaztea izateak ematen duen atrebentzia izanen da.

■ **Ikasle Abertzaleen eledun zara, eta EHko Nafarroako parlamentario ere bai. Hogeita bat urteko gazte bantentzako ez al da jauzi handixkoa?**

Izan dudana bilakaeraren baitan jauzi handia da, bai, baina, azken finean, arlo sektorialetik arlo orokorrera eman dut jauzia. Azkeneko lau urteetan Euskal Herriaren borondatearen arabera eraikitako eskola propio baten alde egin dugu IAn, gure herriaren garapena bultzatzeko duen eskola baten alde. Horrek eratorpen politiko orokorra dauka: Euskal Herria eraikitzea. Parlamentuan aukera daukat ekarpen hori Euskal Herriko nazio eraikitzean beste modu batez egiteko.

■ **Nafarroako presidente bazina, zer da aldatuko zenuke lehenik?**

Nafar guztien presidente izaten saiatuko nintzatzeko. Beraz, Nafarroa Beherearekin loturak estutzen eta Nafarroa osoaren kontzientzia eta batasuna indartzen saiatuko nintzateke. Bigarrenik, Euskal Herriko gainontzeko herrialdekiko harremanak estutuko nituzke. Hirugarrenik,

gaur egun dagoen sistema parlamentario eta demokratikoa goitik behera aldatuko nuke.

■ **Eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektore bazina?**

NUPeke errektore banintz, euskal adar sendo bat finkatuko nuke lehenik. Halaber, egun dagoen antolamendu eta katedradun pribilegioekin amaituko nuke, eta guztion borondatearen arabera unibertsitate berri bat eraikiko nuke.

■ **Zein ezaugarri izango litzuzke?**

Egun dauden 2.000 ikasle euskaldunentzako unibertsitateak euskalduna beharko luke. Etorkizunean euskarak izan beharko luke hizkuntzetan ardatza.

Pedagogia eredu ere aldatu behar litzateke, eta ikasleentzako ikasteko baldintza duinak lortu.

■ **Eta Hizkuntza Politikako zuzendari bazina?**

Ziurtatu eta bermatuko nuke Nafarroako ikasle guztiak gai izatea arlo guztietan 16 urterekin euskaraz mintzatzeko. Horretarako, hezkuntza bestela antolatu behar da, Kuban eskaini zuten alfabetatze unibertsalaren antzera; hezkuntza doakoa eta euskalduna eskaini behar zaie helduei eta alfabetatzea alfabetatu gabe daudenei. Horretarako, noski, Euskararen Legearekin amaitu behar da.

■ **Zer egin behar du Nafarro-**



● EDURNE KOCH

soslaia

Hamabots urte zituela sartu zen Igor Arroyo Leatxe 21 urteko iruindarra Ikasle Abertzaleak taldean, eta duela bi urtetik hona elkarteko bozeramailea da. Asteko egun gehienak kentzen omen dizkio IAKo lanak, eta ikasketak nola edo hala ateratzen ditu. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean ari da, Soziologiako 2. mailan.

Asteburuetan Iruñera etortzen saiatzen da, baina han-hemenka ibiltzen den horietakoa omen da. Dena dela, Nafarroako hiriburuko giroa du gustuko; «denetarik aurki daiteke, hainbat filosofia eredu, kastadunak. Bilbo ezberdina iruditzen zait», adierazi du. Dena dela, iruinseme izateagatik gerta dakiokeela esan du.

Ez du gogoan irakurri duen azken liburua, baina *Bazka* literatur aldizkaria ekarri du gogora. Musikan, «beti atzean geratzen naiz, eta modaz pasatzean gustatzen zaizkit taldeak» esan du. Itoiz asko maite du, eta Kortatu eta Hertzainak ere bai. Halaber aisialdirako nahiago du sagardotegi bateko patxada eta ez kontzertu bateko zarata. Hiztuna izaki, «edan eta edan komunikatu gabe egotea ez dut atsegin».

ak ezkerreko bidea hartzeko?

Konturatu behar dugu Nafarroan izugarrizko jauzia dagoela gizartearen eta ordezkari politikoen artean. UPNkoek eta PSNkoek askotan

erratan dute nafarrek euren borondatea azaltzen dutela, baina hori gezurra da. Hemen gehienak euskararen alde daude, eta euskal gazte gehienak ez dira espainiar sentitzen. Izugarrizko disfun-

«Nafarroan izugarrizko jauzia dago gizartearen eta ordezkari politikoen artean. UPNkoek eta PSNkoek askotan erratan dute nafarrek euren borondatea azaltzen dutela, baina hori gezurra da»

tzioa gertatzen da, eta adierazgarria da ezker abertzaleak, elementu guztiak aurka izan arren, hainbesteko ordezkaritza lortzea. Errealitate eta borondate hori nola gartatu da gakoa.

■ **Gazte elkartek krisian daude?**

Ez dut uste. Orain izugarriko presioa dago gazte eredu jakin bat lortzeko, eta izugarrizko dirutza eta interesak aisialdi eredu oso kontsumista batera jotzeko. Uholde izugarri hori ikusirik, Nafarroan eta Euskal Herrian, herri eta auzoetan, jendea antolatzen da. Egia da %5-10 ibiltzen dela horretan, baina egoera orokorraz jabetu behar dugu. IAK inoizko talde kopuru handiena du Iruñerrian; 22 ikastetxetara iristen da, pribatu erlijiosoak barne, non inoiz ez den mugimendurik izan. Ikuspegi pesimista hori oso interesatua da eta bostere mediatikoez zuzendua.

■ **Noizko, izena ez ezik, izana izan den Euskal Herriko Unibertsitatea?**

Gakoa hauxe da: unibertsitate sektore guztiak gaur egun dagoen gehiengo artifizialaren gainetik jartzea. Egun, NUPn eta EHUn, %48 klaustralak dira, hau da, unibertsitatearen %0,5. Hurrengo 10 urteetan aurrerapausoak eman daitezke.

■ **Karguaren zina egin zenuen egunean, Maribel Beriain UPNko parlamentarioa oso irribarretsu zegoen. Zer esan zenion?**

Elkar agurtu besterik ez genuen egin. Parlamentuan uso, eta adierazpenetan otso. Bitxia da: Parlamentuan ez dago EHkoekin harremanak izateko eragozpenik; kanpora begira, basapiztiak bagina bezala hitz egiten dute gutaz.

→ Irene Arrizurieta

NOSKI JATOR
PALEOLITIKOAN

Eguncroko
oniko
Eguncrokotzuna

Gidoia: Regina
Marrazkia: Zaldi Erola



Nafar Kronika

Pello Goñi

Irtenbiderik ez

Barkatu, baina gaurko diskoa hondatu zait eta ezin dut gelditu. Bere kabuz martxan paratu eta hemen irtenbiderik ez dagoela dio behin eta berriz. Muturretako herria da hau eta tragedia da gure patua. Konturatu gabe herria desegiten ari zaigu, kea esku tartean desegiten den bezalaxe. Herria desegiten ari zaigu oraindik eraiki gabe dagoelarik. Herria jaio gabe desegiten ari zaigu, lurrera txikiturik erortzen den gorpu hil bakoitzaren azpian. Hemen ez dago irtenbiderik. Garbi dago. Irabazi dute eta kito. Aspaldian irabazi zuten, batez ere eskualde galdu honetan. Begiak itxi eta aitzina begiratzea, deus gertatuko ez balitz bezala, errazena da. Askoz zailagoa da, ordea, oinak lurrean paratu, ikusten duguna onartu edo, bederen, toleratu eta horrekin bizitzen ikastea, geureari uko egin gabe, etsi egin gabe, baina garbi edukirik non eta norekin bizi garen. Hemen ez dago irtenbiderik eta erresistentzia baino ez zaigu gelditzen, eustea, ez bakarrik gure aurkarien erasoei, baita etxekoen aitzinean ere: Jainkoak salba gaitzala geure salbatzaileengandik! Bizirik iraun nahi dugu, uzten badigute. Erresistentzia isila besterik ez zaigu gelditzen. Bizirik iraunen dugu ghettoan bada ere. Horretara bultzatzen baikaituzte muturretako jokamolde arrazoigabeek. Euskal herritar izan nahi dugu, nolana eta nonahi, baina gero eta zailagoa da. Hemen ez dago irtenbiderik. Barkatu, baina diskoa hondatu zait.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Elizondo:** Gaur Xabax Kasino ostatuan izanen da, 22:30etan.
- **Zangoza:** Bihar, larunbatarekin, Benito Lertxundi Nora abesbatzarekin batera ariko da 20:30etan, Enrique de Labrit zinematokian.
- **Arruta:** Bihar, 22:00etatik aurrera, Herriko Etxean kontzertua emanen dute Berri Txarrak, Skunk eta Ekintza taldeek.
- **Artaxona:** Bihar Aldabidia, The Last Second eta Last Profhecy taldeek El Circulo aretoan joko dute, gaueko hamabietatik aurrera.
- **Mutiloagoiti:** Igandean, Alex Andreu flauta joleak eta Ana Isabel Izko piano joleak osatzen duten Argos bikotea kultur etxeko auditoriumean izanen dira, 12:45etan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Golem zinematokietan, 20:00etan, Farhad Mehranfar irandarraren *Bizitaren arbola* filma eskainiko dute, Myriam Ballesterosen *Gizon gaizto baten kondaira* filme laburrekin batera.
- **Bera:** Igandean, haurrenizako *Browners* filma emanen dute kultur etxean, euskaraz, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Gabriel Arestiren 25. urteurrenaren inguruko erakusketa bihar arte dago zabalik Gotorlekuko Armen aretoan, lanegunetan 18:00etatik 20:30etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Lacava galerian Rocio Martinezen lanak ikus daitezke bihar arte.
- **Tafalla:** Martxoan hasi arte Ana Carmen Claveriaren margo-

lanak ikusgai daude Garces de los Fayos erakusketa aretoan.

- **Atarrabia:** Maria Isabel Elizondoren olioak kultur etxean ikusgai daude martxoaren 3a arte, lanegunetan 17:00etatik 21:00etara.
- **Burlata:** Emilia G. De Miguellen margolanak kultur etxean ikusgai daude martxoaren 5a arte, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14etara.
- **Barañain:** Alaiz ikastetxean, inauterietako hainbat pertsonaiaren erakusketa ikus daitezke martxoaren 7a arte.
- **Elizondo:** Martxoaren 8a arte, *Gure aitatxi-amatxien tres-*

nak ikus daitezke Arizkune-nean kultur etxean.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bularreko tumorea duten emakumeen Saray elkar-teak *Ezagut eta senti ezazu zure gorputza* izeneko ikastaroa antolatu du, bizkarreko minak, arnas blokeoa eta antzeko arazoak prebenitzeko. Ikastaroan edonork har dezake parte. Izena emateko epea hilaren 29an bukatuko da. Informazio gehiago, 948-229444 telefonoan.
- **Iruñea:** 2000 urteko ekaina arte, Argilan, lan informaziorako gazte bulegoa irekirik dago asteartero, 10:00etatik

12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara (Nabarrerria, 15-1.a, eskuina).

KONTZERTUAK

- **Antsoain:** Gaur Pilt taldeak azken diskoa aurkeztuko du gaztetxean, 22:00etatik aurrera. Harekin batera, Dank eta Mexikoko hip-hop talde bat izanen dira.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Donibanen D eredu irekitzeko bilera irekia egingen dute gaur, 18:00etan, Jose Maria Uharte eskolatan. Gero, 19:00etan, jaitxo egingen dute Vaguadan.

JOXE LACALLE



Negarrik ez

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara hautazko irakasgai libreen mailara jaitsi nahi dutelako, negar batean dira ikasle euskaldunak. «Ez egin negarrik, ez da hainbestetako», erran dute batzuek. IAK, Jarraik, ELAK eta LABek prentsaurrekoa eman zuten asteartean unibertsitate «demokratiko, euskaldun eta asoziatiboaren alde». Ikasleek, batez ere, euskararengatik egin dute negar, baina beste bi arlo horien egoera ere negargarria dela uste izanen du batek edo bestek. Edonola ere, kazetariak adierazi beharra du ezin izan zuela ikaslearen negar egiteko arrazoiaren berri izan. Hori dela eta, unibertsitatean irakasten duten gisara, kontrastatu gabeko informazioa balio guttiakoa denez, ez egin kasu handirik orain arte erranikoari. Eta, faborez, ez negarrik egin.